



## EUROPA

**ARLOA:** Musika

**MAILA:** Lehen Hezkuntzako 1, 2 eta 3 mailak

**DENBORALIZAZIOA:** 6 ordu, 30 minutu

### HELBURU OROKORRAK

- Euskarazko IKT baliabideei esker, ikasleen konpetentzia musikala garatzea.
- Herrialde ezberdinetako kultura ezagutzea.

### HELBURU ZEHATZAK

- Europako dantzak, abestiak, berezitasunak eta bitxikeriak ikastea.
- Berdinen arteko komunikazioa bultzatzea.
- Aurkezpen-gaitasunak garatzea.
- Taldeko lana sustatu eta jorratzea.

### JARDUEREN SEKUENTZIA

#### A) HASIERA FASEA

1. JARDUERA: Kontinentea ezagutzen

#### B) GARAPEN FASEA

2. JARDUERA: Herrialdeak ezagutzen
3. JARDUERA: Euskal Herria
4. JARDUERA: Grezia
5. JARDUERA: Norvegia
6. JARDUERA: Venezia

#### C) AMAIERA FASEA

7. JARDUERA



## A) HASIERA FASEA

### 1. JARDUERA: Kontinentea ezagutzen

<b>Denbormalizazioa</b>	45 minutu
<b>Materiala</b>	Arbela, idazteko materiala (boligrafoa, papera, ordenagailua...), informazioa bilatzeko materiala (liburuak, entziklopedia, interneteko sarbidea duen ordenagailua...)
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Landuko duten kontinentea ezagutzea.</li></ul>

Hasierako fase honetan, landuko duten kontinentea ezagutuko dute ikasleek. Hasteko eta behin, ikasle bakoitzak Europari buruz dakiena kontatuko du, izan bertan egon delako, interesatzen zaiolako, nonbaiten entzun duelako, pelikula batean ikusi duelako edo dena delakoa. Kontakizun guztiak izango dira baliozkoak.

Ondoren, ikasleak binaka jarriko dira eta galdera batzuk erantzun beharko dituzte Europari buruz, eta amaitzeko, landuko diren herrialdeak mapan kokatu beharko dituzte. Azken ariketa hau binaka egin daiteke edo arbel digitala baldin badaukazue, denon artean egin dezakezue ariketa.

## B) GARAPEN FASEA

### 2. JARDUERA: Herrialdeak ezagutzen

<b>Denbormalizazioa</b>	Ordu bat
<b>Materiala</b>	Arbela, idazteko materiala (boligrafoa, papera, ordenagailua...), informazioa bilatzeko materiala (liburuak, entziklopedia, interneteko sarbidea duen ordenagailua...)
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Landuko dituzten herrialdeei buruz informazioa eskuratzea.</li><li>• Egokitutako herrialdeari buruz aurkezpena egitea.</li></ul>

Jarduera honetan, berriz, talde txikitan jarriko dira ikasleak eta talde bakoitzari herrialde bat esleituko zaio. Ondoren, talde hauetako bakoitzak dagokion herrialdeari buruzko honako informazio hau bilatu beharko du gutxienez:

- Non dago kokatuta?
- Nola izena du bere kostak?
- Zenbat biztanle ditu?



- Zein dira jaki ohikoenak?

Galdera gehiago erantzuteko askatasuna emango zaie ikasleei. Ondoren, berriro taldekatzeak egingo dira, horrela, talde bakoitzean herrialde bakoitzeko pertsona bat egongo da gainontzekoei herrialdea aurkeztu ahal izateko.

### 3. JARDUERA: Euskal Herria

<b>Denboralizazioa</b>	Ordu bat
<b>Materiala</b>	Abestia ikasteko bideoa
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Euskal Herriko abestia ikastea.</li><li>• Euskal Herriko kultura balioan jartzea.</li></ul>

Gure Euskal Herria ezagutuko dugu lehendabizi. Bertako hainbat abesti ezagutzen ditugu, eta horregatik, abesti ezberdin bat ikastea proposatzen dizuegu. Zenbat txiki abestia hain zuzen ere. Abesti honek adierazten du txiki askorekin handi bat osatu daitekeela eta munduan dauden kultura ezberdinak balioan jartzen ditu abesti honek.

### 4. JARDUERA: Grezia

<b>Denboralizazioa</b>	Ordu bat
<b>Materiala</b>	Dantza ikasteko bideoa
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Sirtaky dantza ikastea</li></ul>

Greziar irla asko daude eta dantza eta abestiak ere ugariak dira. Baina herrialde osoan ezaguna den dantza hau, Asapikos dantza oinarri hartuta, Sirtaky izenekoa da, eta bera dantzatzen ikasi beharko dute ikasleek.

### 5. JARDUERA: Norvegia

<b>Denboralizazioa</b>	Ordu bat
<b>Materiala</b>	Abestia ikasteko bideoa
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Norvegiako abestia ikastea</li></ul>

Europa iparraldera joango gara oraingoan, hotzetara. Baina Ole Ana abestiak udaberriari buruz hitz egiten du, loreak, txoritxoak kantari... Goazen kantua eta dantza ikastera!



## 6. JARDUERA: Venezia

<b>Denbormalizazioa</b>	Ordu bat
<b>Materiala</b>	Abestia ikasteko bideoa
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>● Oh Venezia abestia ikatea .</li><li>● Veneziari buruzko bitxikeriak ikatea.</li></ul>

Oh Venezia abestiak Rialtoko zubiari buruz eta beste zubiei buruz hitz egiten du. Ikasleek abesti hau ikasi beharko dute. Horretarako, abestiak esaten duena irudikatu beharko dute, abestiak ikasten lagunduko baitie.

## C) AMAIERA FASEA

### 7. JARDUERA

<b>Denbormalizazioa</b>	45 minutu
<b>Materiala</b>	Arbela, idazteko materiala (boligrafoa, papera, ordenagailua...), informazioa bilatzeko materiala (liburuak, entziklopedia, interneteko sarbidea duen ordenagailua...)
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>● Ahozotasuna garatzea.</li><li>● Herrialde ezberdinak ezagutzea.</li></ul>

Azken ariketa honen bidez, kontinente honetan landu diren herrialdeetatik gehiena zein gustatu zaien herrialdea aukeratzeko eta honen arrazoia emateko eskatuko zaio ikasle bakoitzari. Hau, talde handian egingo dute, iritziak partekatzeko eta baita ahaztasuna lantzeko ere. Ondoren, ezagutzea gustatuko litzaieken leku bati buruzko informazioa aurkitu beharko du ikasle bakoitzak. Horretarako, ondorengo galdera hauez osatutako gidalerroa eskainiko zaie:

- Non dago kokatuta?
- Kostarik ba al du?
- Zergatik ezagutu nahi duzu?

Ondoren, binaka jarriko dira eta elkarri aukeratutako herrialdea aurkeztuko dio.